

Erref.- AIP/Goi mailako teknikaria

EBAZPEN-PROPOSAMENA, ERIZAINEN KATEGORIAKO HAUTAKETA-PROZESUTIK SORTUTAKO LAN-POLTSAN LAN EGITEKO ZONA AUKERATZEKO EPEA ZABALTZEA XEDATZEN DUENA.

Gerente jauna:

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpide berriak onartu zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa, eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren 4. artikuluan ezartzen da hautaketa-prozesuaren ondoriozko poltsak eratzen direnengan aukeratuko dituztela izangaiak, lehenengoz, lan egiteko zona zein kontratu-mota direla-eta lehenetsitako aukerak, orduan aukeratuko baitute dute zer poltsa motatan egon nahi duten.

Artikulu berean ezartzen da, hautaketa-prozesu bakoitza amaitu ondoren, GUFek ofizioz hasiko duela lan-poltsak eratzeko prozesua. Eraginkortasun handiagoa lortzeko, egokitzat jo da orain epe bat zabaltzea lan egiteko gunea aukeratzeko. Aukera horrek baldintza etengarri hau du: lan-poltsaren behin betiko onarpena, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpide berrietan ezarritako berrmeekin. Azken xedea da, Gobernu Batzordeak lan-poltsa behin betiko eta formalki onartzen duenean, bat etortzea, zuzen-zuzenean, zonifikazioarekin, nahi gabeko ondorioak eta efektuak saihesteko.

Beren lehentasunak ezarritako epean eta forman adierazten ez dituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharrianetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

Edonola ere, poltsak osatzen dituzten pertsonak lanpostua betetzeko baldintza guztiak bete beharko dituzte kontratua egiten den egunean.

Beraz, hau sinatzen dutenek honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Zona aukeratzeko epe bat zabaltzea, **2021eko uztailaren 6tik uztailaren 15era**, egun biak barne, erizainen kategoriako hautaketa-prozesutik sortutako lan-poltsa osatuko duten pertsonak lanerako zona eta kontratu-mota aukeratzeko eskubidea baliatu dezaten. Telematikoki egin beharko dute, GUFEn web-orrian (www.ifas.bizkaia.eus), «Lan-poltsak» atalean.




Beren lehentasunak ezarritako epean eta forman adierazten ez dituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharizanetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu.

Bigarrena.- Hala baliatutako aukeratzeko eskubideak efikazia eta ondorioak izan ditzan ezinbestekoa da Gobernu Batzordeak behin betiko eta formalki onartzea lan-poltsa.

Hirugarrena.- Ebazpen honen laburpena GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzea.

Bilbon, 2021eko uztailaren 5ean

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO
BURUA



Sin.: Mª José Larrinaga Artetxe

PERTSONAK ZUZENTZEKO
DEPARTAMENTUKO BURUA



Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GUFeko gerentearen 2021eko uztailaren 5eko EBAZPENA. Aurreko proposamena ikusita, osorik onartzen da. Aurrekoa bete bedi.



Sin.: David Latxaga Ugartemendia